



ENGLAND ETA KATOLIKOTASUNA

Gure idazkide maite Larakoetxea'tar Bediña aldi labur baterako England'en dabil, eta an be ezta aitzu *Jaungoiko-Zale'gaz*, idazki eder onek erakusten daukunez.

.....Txaunburuak aratsaldeko bere itzaldia amaitu dau, itzaldi laua ta mamitsua, eta bera gure Jauna agirian iminteko gertetan danañ-tean *eri osoak* zütunik ereserki bulartsu au abestuten daragio: «Gure asabèn siñismena bizirik oraindik—Espetxe, zu ta ezpateafen; —Oil zelango taupada zoliak gure biotzok pozafen—A izen goragafia entzuten dogun oro.—Gure asaba-ziñismena, ziñismen deuna —Zintzo yafaituko dogu eriotzaraño!—Gure asabak ilunbetan estuntzaz aurkituafen lotuta —Biotzez eta irizpidez azke ziran—Euren semeok bai bai-gintzakezala zoriontzauak—Geuk be aik lez bizia zeu-aldez emon al ba'geul —Gure asaben ziñismena, ziñismen deuna.... —Gure asaben ziñismenoi, Miren-otoiak —Bafiz gu-abeñia zeuganduko dabe—Eta Jaungoiko-egi-bidez—A! orduan bai gu gustiok izango garala egiz azke!.....

Gergori deuna—Otoi gure aldez.

Kandsom'go Andera Mari—Otoi gure aldez.

England'go ziñopa oro—Otoi gure aldez.

Maine'tar Cuthbert zoruntsua—Otoi gure aldez».

Abesti sutsu au amaikeran gure Jauna margo gustitariko lora usaintzuardean agertzen da, eta argi-itufiaren inguruan, «Neu naz ludiko argia» esan ebanaren ondoan argizagi ixatuen gafak argi ikarakofa dagi: erdian daukien Jaun itzaltzuaren lotsa ta bilduf dirala dirudi. Abadeak gure Jauna'ren afean Andera Miren'i otoitzik samufena egiten dautso England bafiro ziñismen zuzeneratu daitela biziro eskatuaz... arako beñola «deunen ugar-

tea» izan zana ostera be izan daiten... Abesti ta otoitz samufak benetan, eta biotzai bafen-bafeneko okuluetaaraño ukutu ta eragiten dautsenak. Eta arako: «gure asabak ilunbetan estuntzaz aurkituafen lotuta...» entzuten dogunean geure buruko uleak zofoztuta bizi-bizi datorkiguz gogora arako VIII Endika lizunak eta bere alaba Elixabete ankefak Englan'eko katolikoai yasan (eroan) azo eutsiezan neke-oñaze latzak. Eta Jaungoikoa'k eta bere Ama zoriontsuak abegi ona egin ete dautse England'eko katoliko ufien otoitzoi? Baietz dirudi, ba.

England'eko katolikoak geroago ta geiago dira; batez-beste urterik urtera amabi mila geituten dira, eta olan etenbarik geitu ta ugarituezkero, naiz ta gitxika geitu, elduko da urtea England osoa edo beintzat geiena katoliko izango dana; yoan doana, lenago-geroago, bide-azkenera eldu egiten da-ta. Baña bidezkoa bide leun, zelai eta eragozpidebakoan zarta-zarta yoan daitekeanafen, bidean atxak, armolak, sariak eta aldatzak, edo-ta osteango eragozpideren batzuk, aurkitu ba' dagiz, orduan gitxi auferatzen dau gure bidezkoak; eta katolikotasunak England'en daroan bidea eragozpide ta zoztropoz beterik dago; baña eragozpen edo zoztropoak asko izanafen, ofaitio, gure iritxiz, gatxenak eta okefenak onek irurok dira:

Añokeria, lizunkeria ta lotsea

Englandafa afoa dozu-biotzez, naiz ta artu-emonean txera ona egin; englandafa eztago

aztuta mundurik geiena bere menpean dauk-
la, eta indafak eta nagusitasunak ¿nungo gi-
zona eztau afotzen? Englandafak Elexa kato-
likoa erbestekotzat-daukie, eta England kato-
likoa ba'litz England'en Aita gurenak agindu-
ko leuke (gogozko agintzaz), eta englandafak
ori ezin dabe begi onez ikusi; eurak eztabe
gura erbesteko agintarik, naiz ta gogozko
agintzaz, England'en aginduterik: eurak (en-
glandafak) eztaukie kezkarik inor euren men-
peratzeko, baña euren gain eztabe gura inor-
txo be. Ufengo eragozpena *lizunkeria* dogu,
baña *ustelkeria* esan ba'dait, neure irakurleak
obeto aftuko daustelakoan nago. Gure Eus-
kelefik ekandu garbietatik emeko nasai-lofe-
tara bide-arlo aundia dago: emengo itxaser-
tzetara udaldian, lotsadunik ezin erdu leiteke;
emengo emakumeak inafea ebaltzen eta lapiko-
koa egosten baño euren aragiek erakusten
obeto ete-dakien nago. Baña zoritxafez gatx
au England'ekoa bakafik ezta: loikeri-ugiña
(olatua) mundu gustia-zeaf doa, dana usteldu
beaf gofian. Eta gauza yakiña da, katolikoen
autorkuntza-ikurtona ustelkeriaren eragozpen
gogofa dala. Irugafen eragozpenik gogofena-
taikotzat *lotsea* izentau dot. Gizonari beti
egiten yako gogof eta latz aldatzea, bera ain
aldakofa danafen: besteak *zer esangoaren*
indafa aundia da, eta lotsa ofek asko atzera-
tuten ditu euren eginbeafetik. Katoliko egiten
danak len uste okefearen egon dala autortu da-
roa, eta okef egon garala edo-ta gagozala
autortzeko ez tira gustiak gai: ori banakáena
da. Lotsa onek indar gitxiago dauko txiroen
artean, apalen artean, eta ofegaitik-edo, kato-
liko egiten diranik geienak maña ofetakoak
dozuz. Baña oneik iru gatxok, benetako ga-
txak eta gaitz txafak izanafen, izentau geinke
beste gaitz edo zoztropo bat be, ofeik irurok
baño asko obea ezdana, eta zoztropo ori ezta
besterik uzkuertz-gaietan *ardurarik-eza* baño.
Asko dira England onetan be uste dabenak
zerura yoateko edozein uzkuertz dala ona, ka-
toliko nai protestante izan bardin dala uste
dabenak, eta uste ofen ondorengoa yakiña ta
edozeñek atera leikeana da: bide bi edo gei-
ago ba'dagoz zerura yoateko, eta ni bide ofei-

tatik efezenera ba' noa ¿zer dala-ta itxiko
dot bide efez ori, latzago bat artzeko? Eta
protestante-bidea katoliko-bidearen aldean
efeza da. Baña onek gizaxoak ¿ezin ete-dabe
buruan sartu eurek diñoena egia ba'litz, Josu
-Kisto gure Jauna gixaxo aundi bat baño etza-
la izango, bere afeko uzkuertzak baño obea
etzan uzkuertz (erlejiño) bafia irakasten ain-
beste neke eroanda? Egia ta guzufa ¿bardin
ete-yakoz atsegingafi Jaungoikoari? Eta gau-
za batek safitan, kerexak lez, bere ondokoa
ekafi daroa-ta, ara non yo dogun guk be uste-
barik uzkuertz-gaitz gustien itufia, *ez-yakiña*.
¿Zoritxafez ez yakiña! Oraingo gizontxoak
eztaukie astirik eta gitxiago gogorik uzkuertz-
gaiak aztertu ta beren-beregiz ikasteko, ezta
aintzakotzat artu be, eta ofaitio edozein zapa-
tari asten yatzu uzkuertz-irakasle, ni geiagoko-
barik musikan edo oskigintzan asiko ba'nintz
lez. Ez-yakiña bide dala-ta, ainbat kistañ on eta
zintzo dagoz protestanteen artean be, azkene-
ko epai-egunean katoliko ustel asko eskefeko
aldean itxita eskoako aldean yafiko diranak.

Buekfast Abbey

Protestanteai biotzean ukutu dauksen gau-
zea benetan au, Beneditafen lekaretxe bafi au.
Berau Devmshire'ko Dartmorr'en toki atse-
gingafian dago: aldea batetik Dart ibai gel-
doa ta bestetik Dartmow mendiska, inafa gof-
iz yantzia: gogoa ta biotza Jaungoikoa'gana
eragiteko beren-beregiko tokia. Bere ingu-
ruan lekaideen bosteun erlauntzak bost mila
kilo baño ezti geiago egiten dabe urtero, ba-
ña an erlarik zolienak lekaideak eurak dira.
Erleena baño be zolitasun eta eroapen aun-
diagoagaz *euren eskuz* txadon aundi ta erti-
tsua egin dagie, protestanteak afituta itxirik.
«1907'gnan así geban txadon au, eta geuk
bakafik lan egiñafen, Jaungoikoa lagun, 1932'
gn. urterako amaituteko ustea dogu» inostan
lekaide gazte begi urdin batek, ifibañez eta
englandafan estafi-oguzkereagaz; eta gengo-
zan lekutik (erdi-amaitutako kanpantofetik)
bere atzagaz an bean beargin sendokote bat
erakutsiaz esan eustan: «Ara, ¿ikusten dozu a
an ormagiñan dabilana? Jauparia da» eta ifi-

bafea ezpanetan eukala, bere begiak nire arpegian yosi ebazan, nire biotzaren bafi yakin-gurarik-edo. «Asi giñanean—iñostan—gure asmoa zoroen asmotzat eukien ikusten ginduezan protestante gustiak, baña gerora, ikusi ginduezanean lanari ekin eta ekin eta txadonna gora-ta-gora yoiala, afituta geldituaz gainera, begiko egin gatzakiez eta asko datoz gure lan au ikustera ta gure abestia entzutera, eta safitan eskupeko politak be isten dabez...»

Truro-Cathedral


Ikusi dodazan protestante-elexa gustien afituan geien-geien Truro'ko gotzai-txadon bafian ikusi nebanak begitan yo nindun. Truro au Cornwall'go eña dozu eta bere gotzaña dau, ez baña katolikoa protestantea baño. Gizon au—diñoenez—ona ta yakintsua ei da, eta katolikotasunetik ate-ondoko bidean dagola esan lei. Dana dula, Truro'ko gotxain-txadonean sartzan dan katolikoa afituta gelditzen da an ikusten daunagaz. Txadon edef-ikusgafi au ikusi ta aztertzen genbiltzala, alango

baten eldu giñian eskoako aldeako txadon-egalera ta ara non ikusten dogun ondi edo altara-aufean goian kate batetik dingilizka eta gona-antzeko yantzi edefez estalduta ufe-zidafezko ontzi bat, eta an alboragoan orio-argi bat. «¿Zer da an goian eskegita dagona?» itandu neutson neure lagunari (len protestante izandakoa berau). ¿Zer dago an? A! irakurle maite, eurok uste dabena an ba'lego, ni bere aufean belauniko yafiko nintzake..... Gixaxoak an gure Jauna daukiela uste dabe, baña eztaukie ogia Jos-korputz biurtzeko eskubiderik, eta ofegaitik an ogi-zatitxo batzuk baño eztagoz, eta ofegaitik nire lagunaren erantzunera neuk be berak lez efukizko ifibafetxo bat egin neban. Gotzai oferi ta bere menpekoai Jaungoikoa'k begiak idigiko al dautsez, egizko Elexa'ra, Josukisto'ren artaldera etorteko ta bere egizko Gorputza yanaritzat artzeko.

Lafakoetxea'tar Bedita Jon

L. A. L.

Bodmin (Cornwall) 1928-IX-22



Rodas: Italia'ko ateko aresiak



XVII'gn. Urtia — 336'gn. zenbakia

GOTZANAREN BAIMENAZ

Zornotza'n 1928'ko Azia 1

ETXEKO GORA-BERAK

Aufera.

Laster Bazkintza-Artezkariak idazliakin batera batzafa egingo dogu-ta, erabagirik onenak, egokienak, beafekoenak artzeko, ondo izango litzake bazkideak erabagi-gayak emotea. Esan, ba, danok zer deritxazuen egin biar dala gure asmoak aufera eroateko.

Gure bazkidiak:

Onaindia'tar Domingo Gaztelu - Elexabeiti'ko irakasle argia, irakasletzan yafaitutekotan, ango txauburu-lagun egin dau gure Gotzain maiteak.

Bermejo'tar Jokin, apaiz trebia ta langilea, Andoaingo Efore (txauburu).

Ufutzurtu'tar Tomás, Bedia'ko txauburu-lagun.

Lunbreras'tar Matias abade ikastuna, Usansolo'n Galdakao'ko txauburu-lagun.

Bilbao eta Goiri-golsafi'tar Pantzeska, gure lagun maitea, Zaitegi'ko txauburu.

Aizpurua'tar Eusebio abade gastea Durango'ko eri-etxeke kapelau.

Goi-eskar ugariak bemotsez Jaunak euren zeregiña ondo betetako.

* * *

Gure bazkide ta euskaltzale azkafa dan Afuza'tar Mikel, Bizkai'ko Diputaziñoak Institutoan

daukan euskel-ikastolarako irakasletzat autu dabe, Kirikiño omengafiak itxi daben lekura-ko. Zorionak eta zeure aufetikoak lez izen ona itxi daizula, Bilbo'tar gustiak euskera ikasita, ikastola ori, biar ezalako, kentzen dabenian.

Elgezua'tar Karlos, Eibar'tar gasteak, Donostia'n ointsu egin dan batzaldi baten bere erti lanakaz lenengo saria irabazi dau. Zorionak eta jafaitu beti aufera.

Il diran gure aizkideak:

Ziafutzan Egufola'tar Mikel, bertako txauburu agurgafia. Gure lenengotariko bazkidia zan, eta zintzoro gure asmo ta lanak aldeztu ta zabaldu eroyazan beti.

Muxika'n. «Jauregi» basetxeke Jon Anton, gure bazkide Kepa ta gure banakari Imanol'en aita, bere bizitxako 81'gn. urtean.

Ondañoa'n Markuerkiaga'tar Domingo Manuel, gure bazkide Erapael'en aita.

Bilbo'n R. Bilatxika eta Itufi'tar Maria, gure aizkide Josu'ren afeba.

Euron senidiai laguntzen dautsegu atseka-bian, eta irakurlioi *Aita gurea* bana, ildakoen gogo alde, eskatzen dautzuegu.

G. B.